

## 2. BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua lagungarria izan daiteke aparatu teknologikoak asko erabiltzen dituzten pertsonentzako, nahi dutenean beraien gailuak kargatu ahal dituztelako, inolako entxufe baten beharrik gabe.

Balio kualitatiboari dagokionez, kablerik gabeko beste kargatzeko gailu batzuei begira, naiz eta kargagailu horiek antzeko zerbitzua ematen duten, karga-denbora oso handia izaten da edo zamagagailuaren tamaina handiegia izaten da. Gure kargagailu eramangarriak arin kargatzen du, eta poltsikoan eramateko tamaina ezin hobea du.

Gure produktuaren idean azaldu dugun moduan, pertsonalizazio aukera handia dago, produktuaren kolorea eta karkasaren grabatua aldatu eta elkar-trukatu daitezke, produktu berdingabea sortuz.

Aldiz, balio kuantitatiboari begira, gure produktua lehiakideengandik bereizten gaituena prezioa izan daiteke, izan ere, gure kargagailu eramangarriaren prezioa murriztuta dago material ekonomikoen erabileragatik eta material horiek jasankorrak izateagatik.

